

0.- SARRERA

Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO hemendik aurrera) landu eta berrikusteko ekimena hartu zen 1278/07, 2007ko maiatzaren 22ko Dekretuaren bitartez. HAPOa 2/2006, ekainaren 30eko Lurzoruaren Legearen zehaztepenetara egokituta egon beharko da.

2012ko otsailan diagnostikoa landu zen, hurrengo esparruen azterketaren aurkeztea helburu zuela: esparru legala, udalerrinari eragiten dion planeamendua, inguru fisikoa, sozio-ekonomikoa, hiri-ingurunea, ondare kulturala eta ingurugiroarena. Galdakaori dagozkion gai berezietan ausnarketa sakona egiten du diagnostiko horrek, eta datorren plangintzan eragina izan behar duena,

Diagnostiko hori udal web-orrialdean aurkeztu da. Gainera, hiritarrak parte hartu duten hiru foro temático egin dira, hurrengo gai hauen ildo jarraituz:

- Azpiegiturak, mugikortasuna eta lurralde-modeloa. 2012ko martxoaren 14an.
- Etxebizitza, jarduera ekonomikoak eta ekipamenduak. 2012ko martxoaren 22an.
- Ingurugiroa, biodibertsitatea eta hiritar parte-hartzea. 2012ko apirilaren 3an.

Plangintza berriaren aurrerakina 2012ko uztailaren 26ko Udal Osoko Bilkurak onartu zuen eta informazio publikorako argitaratu zen Ingurugiroaren Gaineko Impaktuari Buruzko azterketa Bateratuarekin batera.

Ingurugiroko Kontseilariordetzak eginiko Ebazpenaren bitartez, 2012ko urriaren 1ekoa, Galdakaoko HAPOn berrikuspenaren **INGURUGIROAREN GAINEKO AURRETIAZKO TXOSTENA** ebatzi da.

Udalbatzak informazio publikoaren epea luzatzea adostu zuen, 2012ko urriaren 31rarte.

Honekin batera, eta hiri-partaidetzaren planarekin bat, Udaletxean egin den erakusketa publiko iraunkorarekin batera azalpen publikoa egin da partaidetza foroan, plangintzaren aholkularitza kontseiluko batzarrak egin dira, eta baita ere HAPOn berrikuspenaren udal batzordeari informazio guztia eskeini zaio.

Informazio publikoan egon den epean 37 idatzi jaso dira. Bat epez kanpo. Hoietariko idatzi batzu hiri-kolektibo baten ordezkari batek sinatzen du, eta beste batzuetan sinatzaile anitzen lista batekin datoz.

Partaidetza epea gainditu ondoren eta hiritarrek aurkeztutako idatzi guztiak aztertu ondoren, aurrerakinaren erakusketa publikoan egindako **IRADOKIZUNEI BURUZKO TXOSTENA** idatzi da. **PLANGINTZAKO IRIZPIDE ETA HELBURUEN DOKUMENTUA** ere idatzi da, lehen adierazitako iradokizunen tratamendua irizpide hauekin bat datozelarik.

Era berean, Ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 90.4 artikuluaekin bat, *“Jendaurreko erakustaldiaren eta herritarren eta erakundeen parte-hartzearen emaitzak aztertuta, udalak plan orokorra idazteko oinarrizko irizpide eta helburuak zehaztuko ditu. Onartzen diren irizpide eta helburuak ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioari buruzko txostenarekin bat ez datozenean, berariaz arrazoitu beharko da hartutako erabakia”*.

Horregatik guztiagatik, irizpide eta helburuen dokumentuak, ingurumen-eraginari buruzko aurretiazko txostenarekin bat ez datozen atalak azaldu beharko ditu. Era berean dokumentu hau osatzeko, aurrerakina jaso eta parte hartu duten administrazioen txostenen zerrenda kontutan eduki behar da.

Plangintzaren irizpide eta helburuak adosteko, hurrengo hauek kontutan hartu izan dira: alde batetik, norbanako edo taldekako iradokizun eta ekarpen batzu; bestetik, sektore-administrazioek aurrerakinari buruz adierazitako gaiak; bestetik, udal teknikari eta politikoen partetik aurkeztutako hausnarketa eta gomendioak; eta azkenik, Plangintzako Aholkularitza Kontseiluak egindako txostena, partaidetza publikoko testuinguruan. Era berean, topatu diren akatsak ere zuzendu egin dira.

Aurreko horrekin guztiarekin orain aurkezten den helburu dokumentua idatzi da. Hauek aurrerakinaren proposamen teknikoa hobetu, zehaztu edota zuzendu egiten dute. Plangintzaren Irizpide eta Helburuen Dokumentua, Udal Osoko Bilkurak onartu beharko du.

Behin onartuak izan ondoren, Aurrerakinaren dokumentuan ezarri beharreko aldaketa eta zehaztasunak bideratzeko balioko dute, eta horrela, Plan berria osatzen jarraituko da. Plan Orokor berriaren dokumentu osoa hilabete gutxi barru bere hasierako onespenerako aurkeztuko da.

1.- IRIZPIDE ETA HELBURUAK**IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK**

1. Administrazioak hirigintzaren inguruan egiten dituen ekintza guztiak interes publikoaren menpean egotea. 2/2006ko legearen arabera interes publikoak bakarrik legezatzten du lurraren ordenazio eta erabilera berriak ezartzea hiri-plangintzaren bitartez.
2. Gure komunitateak dauzkan lur eta etxebizitza beharriaz ezin zaizkie erantzun, inolaz ere, legediaren arabera urbanizazioz kanpo geratu behar den lurraldearen kolonizazioaren bitartez.
3. Lurraren eta etxebizitzaren merkatuaren erregulazioa. Merkatu honetan parte-hartze publikoak honako helburu hauek izan beharko ditu:
 - Lurraren merkatua erregulatu
 - Etxebizitzaren merkatua erregulatu.
 - Hiriaren eta lurraldearen garapena erraztu, ekimen publikoko jokaeren bitartez, eta bereziki, babes publikoa daukaten etxebizitzak eraikitzeko.
4. Biztanlegoaren partaidetza erraztu, sustatu eta bermatu.
5. Pertsona guztiak etxebizitza duina eta bere beharretara egokitzen den etxebizitza baten sartu ahal izateko eskubidea.
6. Administrazio publikoak, bere konpetentzien barruan dagoen heinean, lurraren espekulazioa ekiditeko daukan betebeharra, lurraren eta higiezinaren merkatuan esku hartzeko ekintzak sustatuz.
7. Eskari eta beharrei erantzuna eman, hala nola:
 - Sistema orokorreko sarearen zuzkidura publikoen lur eta eskubideen erreserba estandarrak.
 - Hiri-lur eta lur-urbanizagarriaren tokiko-sistema sarearen zuzkidura eta ekipamenduen gutxienezko estandarrak.
 - Legezko estandarrak kontutan harturik, hirigune bakoitzari dagozkion ekipamendu eta espazio-libreen kuantifikazioa. Biztanlegoaren edota eraikitako azaleraren arabera, kasuan kasu.
 - Gaur egun hirigune bakoitzean dagoen etxebizitza kopurura, tipologia mota eta babes mailaren kuantifikazioa.

- Gaur egun hirigune bakoitzean dagoen ekipamendu eta espazio-libreen kuantifikazioa, bai sistema orokorrei dagozkienak bai tokiko-sistemei dagozkienak ere.
- Jarduera Ekonomikoetara zuzenduta dagoen lurraren kuantifikazioa.
- Hirigune bakoitzean legokeen defizitaren kuantifikazioa, hurrengo gaietan: Sistema Lokalak, Sistema Orokorrak eta Babes Ofizialeko Etxebizitzak.
- HAPO berriko iraunaldian aurreikusten den hiritargoaren hazkundera.

INGURUMENARI BURUZKO IRIZPIDE ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK

1. Lurra modu arrazionalen eta intentsiboan erabili: dentsitatea, hiri-birgaitzea, antropizatutako lur-eremuen berrerabilpena ahal bada.
2. Natur-balioak babestu, baita biodibertsitatea eta segurtasuna, erabilerak aukeratzeko orduan lurzorua kapazitatea kontutan hartuz: Lur ez-urbanizagarriaren antolamendu egokia, "Paisaia" gaia udal-planeamenduan integratu, Lurraren erabilerak ezartzeko irizpideak hautzeko orduan lurraren uholde-maila kontutan hartu
3. Hiri-egitura dentsuak, trinkoak eta konplexuak sustatu, eta erabilera anitzak elkartu: modu misto eta malguan planifikatu, ekipamenduen eta espazio-libreen azalerek herritarren beharrei erantzun.
4. Hiriaren Diseinu ekoefizientea, behar ez den mugikortasuna ekidin, eta garraio kolektiboa handitu eta gastu energetikoa txikitzen duen modeloari lehentasuna eman (erdiguneko peatonalizatzea): Hiri-garapena azpiegiturak eta garraioak dituzten guneean, bidegorri-sarea ahal den neurrian diseinatu, eta oinezkoen espazioaren erabilera-anitza sustatu, eraikuntza ekoefizienterako araudia.
5. Inguru urbanoaren integrazio naturala sustatu: berdeguneetako irisgarritasuna hobetu, korridore naturalak mantendu eta sustatzea (ibai-ertzak eta ubideak).
6. Biodibertsitate-galerak geldiarazi, ekosistemak berreskuratu, eta lurraren artifizializazioa mugatu.
7. Ingurumen osasuntsua eta garbia bermatu, aire-kalitatea hobetuz: aire-kutsadura eta argi-kutsadura hobetzeko, eta zarata kalitatearen helburuak betetzeko araudia; babes neurriak eta erabilera murrizketak zehaztu zarataren sortze guneen arabera (ospitalea).
8. Ur-kalitatea hobetu, baita ur-baliabideen kudeaketa ere (ibiaertzak babestu eta berriztatze neurriak, ur-sarearen hobetze eta autohornikuntzarako neurriak hartu).

HIRI-LURRA ETA LUR URBANIZAGARRIAREN ANTOLAKUNTZARAKO IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

- 0.1. Hiriguneen benetako beharrianak kontutan hartuz planifikatu.
- 0.2. Kuantifikatu daitezken egungo defizitak kontutan hartuz planifikatu, eta dagoen lurra eskaera horri erantzuteko erabili.
1. Hiriaren garapena, egungo hirian oinarritu behar da:
 - a. Egungo hiri-garapenak eta aurreko HAPOaren arabera egoki kudeatu direnak kontsolidatu.
 - b. Hirigunearen hazkundera zuzendu hiri-sarean modu errezean integratu daitezkeen espazioak erabiltzen.
 - c. Hiri-berrizatzeko eremuak zehaztu, erabilera zaharkituak nabaritzen direnean, edota eraikinen bizigarritasun falta, azpiegituren edota irisgarritasun karentziak nabaritzen direnean.
2. Metro linea berria geltokien inguruan hiri-garapenerako aukera ezin hobea da, Aperribai-Olabarrieta, Bengoetxe eta Kurtzea hasiera baten, eta Usansolo bigarren fase baten.
3. Testuinguru demografikoaren egonkortasunak hurrengoak errazten du: etxebizitzaren hazkundera barne-eskaerari mugatzea (famiariaren tamainaren txikitzeak ekarri duena batipat).
4. Erabilera tertziarioak etxebizitzetako esparruetan konpatibilizatu.
5. Zaharkituta dauden industriaguneen desklasifikazioa, baldin eta lur ez-urbanizagarriko inguru baten badaude; eta ingurugiroari dagokion hobekuntza, beti ere ondare arkitektonikoa galdu gabe.
6. Hiria birgaitzea, eta uholde mailak eragiten dien industriaguneak berriz hausnartu.
7. Deskalifikatzen diren lurren kopurua berriro ezarri ahal izateko lur berriak proposatu. Hori baita Jarduera Ekonomikoen PTSak agintzen duena.
8. Jarduera ekonomikoen lur-eremuetan eraikigarritasuna handitu, m2-ko enplegu kopuru altuak dituzten jarduerak sustatuz, eta erabilera anitzak eta mistoak dituzten enpresa-parke eta parke-teknologikoak bultzatu lur berri hauetan edota birgaitzen diren lur eremuetan.
9. Hiri-barruko komunikazioa hobetu. Usansolo eta Aperribai arteko bide-komunikazioa indartu. Era berean auzoen arteko loturak indartu behar dira, oinezkoen eta bizikletaz ibiltzeko bideen bitartez.
10. Erdiguneko mugikortasunaren hobekuntza, hurrengo moduan:
 - a. Erdiguneko kaleetatik ibilgailu-zirkulazioa kenduko duen bide-eskema diseinatzen, herriko irteerekin dauden konexioak indartuko dituen. Beti

ere ingurugiroaren gaineko inpaktu handiak sor dezaketan obra eta jarduerak saihestuz.

- b. Ibilgailuaren erabilera murrizteko disuasio-aparkalekuak ezarri modu estrategikoan.

11. Ekipamendu-sistemaren hobekuntza:

- a. Behar diren lurak erraztuko dira, biztanleriak eskatzen dituen ekipamenduak ezarri ahal izateko (haurreskola, eguneko zentroak, topaguneak.) eta egun inguruan sakabanatuta dauden beste ekipamendu batzu batu ahal izateko gai izango direnak.
- b. Erabilera Anitzeko Eraikin baten kokapena (jarduera ekonomikoak, sozialak eta kulturalak hartu ahal izango dituen) La Cruz metro-geltoki berriaren inguruan. Era berean egun inguruan sakabanatuta dauden beste ekipamendu batzu batu ahal izateko gai.
- c. Bengoetxeko etxebizitza hazkundearekin bat etorriko litzatekeen Kirolgune berri baterako espazioa. Baita Olabarrietako eta beste hirigune batzuen irisgarritasun unibertuala behar duten kirolguneen hobekuntza eta garapena ere.
- d. Hiri estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren arabera eskatzen den Hezkuntzarako lurraren aurreikuspena. Baita aparkalekuen zuzkidura eta hobekuntza ere.
- e. Atrakzio-parkeak egun duen herriz gaindiko ekipamendu erabilera berriz hausnartu.

12. Espazio libreen hobekuntza:

- a. 2/2006ko legeak eskatzen dituen espazio libreen sistema generalak hobetuko litzaketan lur-eremu berrien lorpena. Gune hauek biztanleriarekin egoki komunituak eta irisgarriak izango dira. Ahal den heinean SGEL hauek HAPOak ezarriko dituen lur eraikigarriei atxikituko zaizkie. Ibaizabalen bideratze lanekin batera, ibaiaren ondoan joango den bide-berde zabala sortuko da ere.
- b. Auzoei lotuta egondo diren sistema lokaleko espazio libreen sarea osatu.
- c. Espazio publiko natural handien bitartez sistema orokorreko espazio libreen sarea osatu. Hauek ez dira han erabilerrazak izango, baina natura hirian sartu ahal izateko gaitasuna daukate.

13. Irisgarritasunaren hobekuntza:

- a. Hazkunde berriko lekuetan, beste esparru handiagoetan ere erabilgarriak izango diren irisgarritasuna hobetzen duten elementuak ezarri.

- b. Hiri zentroa eta errepidearen beste aldearen arteko akzesibilitatea eta komunikazioa hobetu, N-634 errepidean dagozkion eraldatze lanak eginez.

LUR EZ-URBANIZAGARRIA ANTOLATZEKO IRIZPIDE ETA HELBURUAK

Balio natural bereziko guneei eman behar zaien babesaren eraldaketatik libre geratzeko, Galdakaoren kasuan zera eskatzen du: gunek behar dituzten babes-neurriak ezarri, mantendu eta babestu ahal izateko, eta ahal bada berriro ahal izateko.

Ildo honetan DOT, BASO-NEKAZARITZA PTS, IBAIERTZEN PTS, eta HEZEGUNEEN PTSek Inguru fisikoaren antolakuntza egiterako orduan oinarri dira, adierazitako gunek hien zehaztapena egiteko.

Egundo HAPOak ez ditu Lurralde Antolakuntzarako Gidalerroak (DOT) proposatzen dituen lur urbanizagaitzaren kategoriak erabiltzen.

Horregatik DOTen arabera HAPO berriaren Aurrerakin honetan proposatzen dira hurrengo Ordenazio - Kategoriak lur urbanizagaitzean:

- Babes berezia
- Ingurumenaren hobekuntza
- Baso babesaren
- Nekazaritza – abeltzantza eta landa
- Gainazeleko uren babesaren
- Landa-guneak

BABES BEREZIKO GUNEAK

Egoki kontserbatzen diren tokiko baso guneak, erreka sareak, barnealdeko hezeguneak, landaretza berezia duten guneak, eta orohar, ekologia, kultura eta paisaiaren aldetik balioa duten elementu guztiak.

INGURUMENAREN BABESERAKO GUNEAK

Baso degradatuak, sastratak guneak eta bazterreko lurrak, balio handiagoa duten guneen ondoan egoteagatik bere hobekuntza onuragarria ikusten dela ingurumenaren kalitatea hobetzeko.

BASOEN BABESERAKO GUNEAK

Egun dauden baso-lurrak eta bere kokapena dela-eta basoan bihurtzea komenigarriak diren lurzoruak.

NEKAZARITZA-ABELTZANTZA ETA LANDA GUNEAK

Nekazaritzarako egokitasun maila ezberdinak dituzten lurzoruak biltzen ditu: kantauriko landatik hasita, ureztapena duten hortuak, mahastiak, eta nekazaritza intentsibotik pasatu eta nekazaritza-abeltzantzarako balio gutxiko lurzoruetara ere. Nekazaritza-abeltzantza, Balio Estrategiko Handia edota Landa Transizio Paisaia azpikategoriak izango ditugu.

GAINAZALEKO UREN BABESERAKO GUNEAK

Erreka eta ibaien ondoan dauden lurzoruak dira, Ibaien eta erreken marjinak antolatzeko Lurralde Arloko Planak zehazten dituen babes maila daukate.

LANDA-GUNEAK

Kategoria honetan BFAk idatzi behar duen inbentarioan batzen diren landa-guneak sartuko dira. Ekainaren 3ko 105/2008 DEKRETUaren arabera, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa, zehaztuko dira landa-gune hauek.

Landa-gune kontsideratzen ez diren populazio-guneetan HAPOn egungo eraikinak errespetatuko ditu, eta berauek mantendu eta hobetzeko gaitasuna emango die, beti ere ordenazioan dagozkion mugapenak ezarri eta inolako eraikin berririk ez egiteko dagozkion debekuak ezarri. Hori bai, gaur egun dauden eraikinei baimendu ahal izango zaie etxebizitza ezberdinetan zatitzea. Hori guztia honako helburu hauek lortzeko:

- Lur Ez Urbanizagarrian nekazarien finkatzea bermatzeko, etxebizitza helburu bakarra duten finkapenak kanporatuz.
- Landa-guneei dagokien nekazari-izaera berreskuratu.
- Gaur eguneko guneei lotuta ez dauden garapen-area berrien sorkuntza ekidin.

Aurreko landa-gunetan dauden eraikin guztiak kontsolidatzea proposatzen da, eta inolako eraikin berririk eraikitzearen debekua. Landa-gunetik kanpo dauden eraikinetan, eta lehenengo sektoreari loturiko ustiapenik ez dutenak, planeamenduarekin bat ez datozen eraikin bezala kontsideratuko dira. Hauetan hala ere, ez da aurreikusiko beraien derrigorrezko desagertzerik. Nekazal-uztiapenearekin egon behar duen lotura ez izateak ez du beraien iraupena mugatuko.

GAINJARRITAKO BALDINTZAPENAK

HAPOn gainjarritako baldintzapen batzu hartzea proposatzen da, hauek Antolakuntza-Kategoriari gainjarriko zaizkie, eta horrela erabilera-jardueraren arriskuaren arabera garatu daitezkeenak mugatuko dira kasuan – kasu.

Antolakuntza-Kategorien gainean garatu daitezkeen jarduerak mugatuko dituzte, suposatzen duten arriskuaren arabera eta DOTen zehazten diren irizpide eta gidalerroak jarraituz.

Plan orokorrak gainjarritako baldintzapenak eragiten dituzten lur-eremuak mugatuko ditu, eta edozein motako jarduera egiteko baimentzeko behar diren baldintza eta irizpideak ezarriko ditu.

Gainjarritako baldintzapenak hauek izango dira: Akuiferoak kutsatzeko kalteberako

guneak, Higadura-arriskua duten guneak, Uholde-arriskua altua duten guneak, y betetzeko guneak*.

* PTS Agroforestal-eko sailkapenean ez datorrena.

Area hoiek hurrengo mapa eta planen arebera zehaztuko dira: “Mapa de vulnerabilidad de los acuíferos a la contaminación”, “Mapa geomorfológico Sintético de la CAPV”, “Plan Integral de Prevención de Inundaciones”, eta onartzeko bidean dagoen “Plan Director de Zonas Rellenables” bere kasuan.

Presagainen babeserako eta mantenimendurako baldintzak zehaztuko dira. Hauek ur-hornikuntzarako iturri izan bait daitezke, baina mantenimendu-kostu altua ere, europear segurtasun-araudia dela eta.

ONDARE HISTORIKOA BABESTEKO IRIZPIDE ETA HELBURUAK

Udalerriko analisisian aurreikusitako zerrenda abiapuntu hartuta, kontserbatzeko benetako interesa duten eraikin eta elementuen identifikazio egokia egin: ondare arkitektonikoaz aparte beste elementu interesdun batzu ere kontutan hartu, hala nola errege kalezada, Santiago Bidearen trazadura, mendiko burdinola, kaleroak, “Cinturón de Hierro”-ren aztarnak, zubiak, etb.

Beraien babesa eta mantenimenduaren sustapenerako baldintza egokiak ezarri.

JARDUERA EKONOMIKORAKO LURREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK

Hurrengo helburu hauek berretsi dira:

- a) Degradatuak dauden esparruak berpizteko apostua egin, erabili barik dauden lurrak erabili, eta horrela komeni bada PTPak baimentzen duen hazkundera ezarri.
- b) Lur-eremuen berrikuntzak jarduera intentsiboa ez duten industria guneak ezartzeko aukera emango du: Gorosibai (UE-GO-3), Irubide, Mercadillo...
- c) Zaharkituriko lurren deskalifikazioak, lur-eremu hoi kopurua berriro ezarri ahal izateko lur berriak proposatzera behartzen du. Hori baita Jarduera Ekonomikoen PTSak agintzen duena: Aranzelai eta Ibaizabalen bideratzea dela eta eragindako lurrak.
- d) Hirugarren sektoreko eta erabilera komertzialei lagundu herriko erdigunean; baita ere, hurbiltasunezko komertzioari hiriko beste etxebizitza lekuetan.

ETXEBIZITZARI BURUZKO IRIZPIDE ETA HELBURUAK

Etxebizitzaren arloan aurrerakinean azaldu ziren helburuak berresten dira:

- Demografiaren arloan dagoen egonkortasuna dela eta, hiriaren hazkundera mugatzeko aukera ematen da. Herri-barruko eskariak behartutako etxebizitza kopurua asetzeko bakarrik nahikoak izango liratekeen lurzoru berriak erabiliz.
- Beste alde batetik, eskaintzen diren etxebizitzarako lurzoru berriek eskariaren agortzea ekidin ahal izango dute; bai egungo eskaria, bai HAPOan aurreikusten den iraupenaren amaierako biztanleriarena ere.
- Babes maila guztietako etxebizitza motak eskaini, egungo gizarteak eskatzen duenari erantzuteko eta Legaak agintzen dituen estandarrak betetzeko.

Horregatik guztiagatik hurrengo irizpide hauek erabiliko dira:

- Hiri-sarean egunean geratzen diren orube eta partzelak aprobetxatu; Honekin batera arazoak sortzen dituzten edota gogaikarriak diren erabilerak aldatu, edo gutxienez degradatuta dagoen ingururen bat birgaitu.
- Metroak izango dituen geltoki berrien inguruan geratzen diren lurrak erabili egoitzadun erabilerarako.

Etxebizitzaren eskariari buruzko hausnarketak

Galdakao egoitzadun lurzoruko etxebizitzaren dentsitatea Bizkaikoaren eta EAEkoaren parekoa da, baina Eskualdekoarekin konparatuta askoz txikiagoa, jenderik gabeko etxebizitzaren portzentaia EAEkoaren antzekoa delarik.

Etxebizitzaren tamaina erdia 2006. urtean 85,5 metro karratukoa zen.

Ikusten da eraiki diren babestutako etxebizitza kopurua azken bost urteotan Bizkaia eta EAE-n baino gutxiago dela. Hala ere Etxebiden egindako eskaerak ere herri honetan gutxiago izan dira: Bilbo Handian egiten den eskariaren erdia gutxi gorabehera hain zuzen ere.

Edozein kasutan, etxebizitzarako erabilera duten lur eremuen eskaintza argia eta zehatza bermatuko da; baita ere birmoldaketa sakona egiteko proposatzen den eremuetan, edota eguneko eraikinak eraitsi eta beste handiago batzuegatik ordezkatu nahi diren kasuetan.

Udalak, urtean-urteko egoera honi buruzko egin ditzakeen azterketa lanetan oinarrituz, programa bereziak sustatu ahal izango ditu beste administrazioekin batera. Egitasmo hauek eguneratu ahal izango ditu, eta beraien helburu nagusie hutsik dauden etxebizitza kopururik handiena kudeatu eta merkatuan ipintzea erraztea izango da.

HAPOak bere aurreikuspenak 2/2006 Legearen 3.3.c artikularen edukierari egokituko ditu.

Komertziorako egokiak ez diren inguruetan, beheko solairu eta tarteko solairuetan etxebizitzak ezarri ahal izateko azterketa egingo da. Beti ere babes mailetakoa baten egin behar izando direlarik.

Etxebizitza berriak eraiki ahal izateko lurraren aurreikuspena

Lur azalera nahikoa bermatzeko eta erabilgarriak diren lurren garestitzea ekiditeko, egoitzadun erabilera duten lurzoru berrien birsailkapena beharrezkoa da; bai lur-urbanizagarriko sektore berrietan, bai hiri-lurzoruko birmodatze-jarduketan.

Egungo eremuetan eraiki barik dauden 853 etxebizitza kopurua (gutxi gorabehera), eta hirigunean geratzen diren orube batzuetan ordenantzaren egokitzapen batekin eraiki daitezken etxebizitza kopurua batzen baditugu, DOTen berrikuspenen aurreikusten ari den Galdakaon ezarri beharreko etxebizitza kopuru maximotik hurbil gaude.

Horrela behar izanez gero, garapen berrietako eremuetako etxebizitza kopurura moldatu egin beharko da egoitzadun hazkundearen irizpide hauetara. Hori guztia lor daiteke lurzoru urbanizagarri sektorizatua eta lurzoru urbanizagarri sektorizatugabeko mugatze mota ezberdinak erabiliz.

Herriko bilbean etxebizitzak ezartzeko proposamenak

Herriaren erdigunenan eta etorkizuneko Metro geltokietan oinarrituta (Aperribai, Bengoetxe eta Kurtzea), azaleraren aldetik garrantzitsuena eta oihartzunik handiena izango duen proposamenik daukagu, Plazakoetxeren eremuarekin batera hirigunearen erabateko berriztatze eta birdentsifikatzea ekarriko duena.

Egoitzadun eremuetan aurreikusten diren proposamen nagusienak

Plangintzaren aurrerakin dokumentuan azaltzen ziren proposamen batzu berresten dira:

OLABARRIETA

Bengoetxe eta Txistulandaren arteko esparrua jarraia izateko aukera aztertuko da, nahiz eta A8k sakabanatzen dituen. Metroaren etorrerak erakarriko duen biztanlegoaren hazkundea hartuko duen sektore berri bat eratzeko bideragarritasuna aztertuko da, Bengoetxen ezarriko den geltokia kontutan hartuz. Gainera inguru horren urbanizazioak auzo osoarentzat irisgarritasun hobekuntzak ekarriko ditu.

BENGOETXE

Lur urbanizagarri honek herriko mendebaldeko bilbea osatzen duen garapena errazten du. Eta horrela herriko erdigunearen nagusitasunari laguntzen zaio.

Udalak aurretik onartu zuen garapen planeamenduarekin jarraitzea proposatzen da hemen, nahiz eta irisgarritasunaren ete bidesarearen maldak berriro aztertu beharko diren.

PLAZAKOETXE

Espazio libreen sistema orokorrak zelan sustatu eta lortu aztertuko da, eta hiritargoa espazio hauetara zelan hurbildu. Helburu hori lortzeko N-634 kolonizatzea proposatzen da, ahal den neurrian behintzat. Horrela Galdakao erdiguneko biztanlegoari Ibaizabal hurbilago egingo zaio eta ibaiertzaren berreskuratzea bultzatuko da.

LABEA – LABEAGA

Iparraldetik, hegoaldetik eta mendebaldetik ibaiarekin mugatua eta ekialdetik hospitalarekin, sektore hau Usansolo eta Bekearen arteko hiri-sareko zubi modura planteatzen da. Kudeatuta dauden lur-urbanizagarrien berdensifikazioaren arabera lur-eremu honen garapena sustatuko da,

Galdakao ospitaleko metro-geltokiak izan behar duen intermodalitatearen ideia indartuz.

USANSOLO

Lur urbanizagarria dago hemen, baina ibaiak eta uholde-arriskuak eraginda bere garapena mugatuta dago. Inguru honen garatzeak, beste batzuen artean, Usansolo eta Bekearen arteko bide-komunikazioak hobetzea dakar.

Esparru honen berdentsifikazioa aztertuko da, lehen ere adierazi diren helburuak lortzeko.

GOROSIBAI

Egungo Planeamendu Orokorreko S-GO1 sektoreaz ari gara, gazteek alokatu ahal izateko babesturiko etxebizitzak sustatzeko zuzenduta dagoena. Antolamendu xehatua dauka. Sektore honek alokairu-etxebizitzak egiteko xedea matendu beharko du, eta horrela ez bada eta saltzeko etxebizitzak aurreikusiko balitz, udalari lagako zaizkio dagozkion gainbalioak.

HASIERA BATEKO ONARPENERAKO KONTUTAN HARTU BEHARREKO **INGURUGIROARI BURUZKO EZAUGARRIAK**

AURREKARIAK

2012ko martxoaren 6an Galdakako Udalak, HAPOaren berrikuspenarekin lotuta, erreferentzia dokumentua lortzeko izapideak hasi zituen.

Administrazio publikoen eta interesatuen identifikatze eta kontsulta epea gainditu ondoren, 2012ko maiatzaren 3ko ebazpenaren bitartez, Ingurugiroaren Planifikazioaren Zuzendaritzak emana, **INGURUGIROAREN GAINEKO ERAGINARI BURUZKO AZTERKETARAKO ERREFERENTZIA DOKUMENTUA** eman zen.

Galdakako Udalak, Ingurugiro Sailean, 2012ko uztailaren 31an eskatu zuen HAPOren Aurrerakin Dokumentuaren Ingurugiroaren Gaineko Eraginari Buruzko Aurretiazako Txostena.

Ingurugiroko Kontseilariordetzak eginiko Ebazpenaren bitartez, 2012ko urriaren 1ekoa, Galdakako HAPOren berrikuspenaren **INGURUGIROAREN GAINEKO AURRETIAZKO TXOSTENA** ebatzi zen.

AURRETIAZKO TXOSTENATIK ERATORTZEN DIREN ETA KONTUTAN HARTU **BEHARREKO INGURUGIROARI BURUZKO EZAUGARRIAK**

Alde batetik Ingurugiroko Kontseilariordetzak igorritako **INGURUGIROAREN GAINEKO AURRETIAZKO TXOSTENA**, eta bestetik eragina duten administrazio publikoak igorritako gaiak aztertu ondoren:

- Ingurugiro-kalitatearen zuzendaritza. 2012ko abuztuak 22
- Itsasertz eta nakazal garapenerako zuzendaritza. 2012ko abuztuak 24
- Kultura ondarearen zuzendaritza. 2012ko irailak 10
- Biodibertsitate eta ingurugiro-partaidetzaren zuzendaritza. 2012ko irailak 13.

Ingurugiroari buruz kontuta hartu beharreko gaiak batzen dira hurrengo ataletan; Galdakako HAPOren Berrikuspena hasiera batez onartu ahal izateko:

- HAPOren onorioz onartuko diren proiektuak egiteko araudi-testuan Ingurugiroaren gaineko eraginari buruzko azterketarako kontutan hartu beharreko sektore-araudiari erreferentzia egin beharko zaio; baita ere tokiko landareetan, biodibertsitatean, DPHn, paisaian, hindakinetan, edota lurren kutsaduran eragina izan dezaketen jardueretan.
- Abeltzantza-jarduerak direla eta, HAPOren araudian egungo sektore-araudian ezartzen diren baldintzak sartu beharko dira.

- Lur Ez Urbanizagarrian PTS Agroforestal araberako antolakuntza egin beharko da HAPOan ere.
- Kultura ondareari buruz, katalogatuak dauden elementuen babes-neurriak ezarri beharko dira HAPOren araudian; eta baita, kultura interesa duten elementuen udal katalogoa egin beharko da.
- Artifizializatutako azalera dela eta, egin beharreko hazkundearen proposamenaren justifikazioa egin beharko du HAPOak.
- Erletxeko industria hazkundera baztertzea eskatzen da.
- PTS Agroforestal-en agertzen diren kategoria guztiak agertzen diren antolamendu-kategoria planuak eduki beharko ditu HAPOak.
- Garapen berriak direla eta, hurrengo esparruak baztertzea komeni dela esaten da:
 - Olabarrieta sektorea
 - Bengoetxe 2 sektorea
 - Labeaga sektoreaHori ez bada egiten, azterketa eta hausnarketa egin.
- Lurrez betegarriak diren esparruei buruz hurrengo adierazten da:
 - Kokalekuak zehaztu, eta hiri-garapena dela eta artifizializatu diren edota artifizializatu behar diren lur-eremuak aukeratu batipat (abandonaturiko harrobiak, etb.)
 - Planeamenduaren araudian ezarri egitasmo bakoitzeko soberakinen (hondakinen) norakoa zein izango den. Lubeten ezaugarri teknikoak ere ezarri beharko dira, etorkizunean izango duen erabileraren arabera.
 - Aurreikusi diren kokalekuen artean, Erletxe 2 eta 3 guneak, eta Artea-Lekubaso 1 eta 4 guneak baztertzea eskatzen du Biodibertsitate eta ingurugiro-partaidetzaren zuzendaritzak. Iritzi horrek 49/2009 Dekretuko 15. artikulua araberako eragina du, eta beraz, baztertu behar dira.
- Planuetan agertzen diren Golf-Zelaiko neurketak konprobatzea eskatzen dute.
- Meatxaturik dagoen flora-espezieen inguruan zera eskatzen da: HAPOaren eraginez Dryopteris aemula eta Dryopteris crthusiana espezien gainean izango den inpaktuaren botanika-azterketa.

Galdakao, a 2013ko martxoan